

Haginetako mina


Euskal gatazkari buruzko
ipuinen antologia bat

Anjel Lertxundi
Mikel Albisu Iriarte, *Antza*
Edorta Jimenez
Inazio Mujika Iraola
Patxi Zubizarreta
Pablo Sastre
Luis Fernandez
Jose Luis Otamendi
Xabier Montoia
Jokin Muñoz
Lander Garro
Eider Rodriguez
Xabier Mendiguren Elizegi
Iban Zaldúa
Jon Alonso
Harkaitz Cano
Karmele Jaio
Joseba Sarrionandia

Hautaketa eta hitzaurrea Mikel Soto



LEHENENGO EDIZIOA
Tafalla, 2008ko azaroa
BIGARREN EDIZIOA
Tafalla, 2009ko urtarrilla

© Txalapartak EDIZIO HONENA
© Mikel Sotok OBRARENA
© Egile bakoitzak BERE LANARENA
©  Luis Fernandezek

Editorial Txalaparta e.m.l.
Navaz y Vides 1-2
78. Posta kutxa
31300 Tafalla NAFARROA
Tel. 948 70 39 34
Fax 948 70 40 72
txalaparta@txalaparta.com
www.txalaparta.com

AZALA ETA BILDUMAREN DISEINUA
Esteban Montorio

MAKETAZIOA
Monti

INPRIMAKETA
RGM
Igeltzera poligonoa, 1 bis, A1 pab.
48610 Urduliz - Bizkaia

ISBN
978-84-8136-530-6
LEGE GORDAILUA
BI. 147-09



Hitzaurrea

MIKEL SOTO

NON MINA, HAN MIHIA diosku Bertrand Zalgizek bildutako atsotitzak. *Allá va la lengua do duele la mueladio*, orokorragoa izanik zehatzago, gaztelaniazkoak. Mina sentitzerakoan, gorputz adarraz gain, hizkuntza ere badao oinazera, baita harekin literatura ere. Minak, nonbait, mihia behar du goxatzeko, eta hitza ez da mihitik urrun, eta hitza literatura da, eta mina, eta goxatu nahia.

Minetara doa gure gogoa, nahi baino maizago. Askotan, besteengan ikusten dugulako «gure» gatazka mina, baina, batez ere, guk geuk sentitzen dugulako gure gatazka horren minik barrukoena. Sarri itzultzen dugu mingainaren begirada konturatzeko gure hagina ez dagoela bere lekuan eta, besamotzaren besoa bezala, dena dela eza, dena gabezia eta dena mingarria.

Kolpatzearen kolpatzeaz, apenas dugun haginik. Barreiatuta dauzkagu ringtzat hartu dugun mundutxo honetan zehar. Zorionez, antologia honi izenburua eman dion Jose Luis Otamendiren «Hagina» ipuinean bezala, minak erauzitako gure haginak bildu dituzte

idazleek eta ibaira jaurti, eta han, errekarrien gisa biraka higitu eta perla bihurtuta heldu dira gure literaturaren itsasora. Gure minak ura behar zuen lurra bezainbeste.

Haginik ez dugu ia, bai ordea minik. *Vosoutros dentistas sóde-los terroristas* idatzi zuen burua argi, luma zorrotz, Anton Reixak. Eduki ditugu –eta badauzkagu– inguruan dentista gehiegi, gure mingainetik, gure hizkuntzatik eta gure literaturatik mina erauzi nahi izan dutenak. Baina gurean minak izan ditu hitzak eta hitzak mina. Orain eta lehen.

Antologia guztiak partzialak dira –batzuk besteak baino gehiago, egia esan– eta, beraz, esatea soberan egon badaiteke ere, badaezpada esango dut: antologia hau partziala da, partziala denez. Euskal gatazkari buruzko ipuinen antologia bat da hau. Kanpo geratu dira, beraz, nobela, poesia eta saiakera, norbaitek horiek arakatzeko lana bere gain noiz hartuko zain. Generoak marikatzen dituen mugetatik zaila da kazetari, idazle, editore, kritikari eta enparauoi hainbeste morbo ematen digun euskal gatazka eta literaturaz aritzea.

Hala ere, antologia hau apailatzen jardun dudalarik, ipuingintzara soilik ez, azken hamarkadetako euskal letretara itzuli dut begirada halabeharrez eta, arestian esan bezala, ez dago mina gure letretatik erauzterik, ezta gure letretatik mina erauzterik ere. Euskal gatazkak gure literatura garaikidean eduki duen lekua aroka eta generoka aztertuta, sumatzen diren desorekak, irudipena daukat, genero eta aro horien artean dauden desoreken ondorio naturalak dira.¹

Are gehiago, lana amaitu eta zalantza indartsuago bat piztu da nigan. Ez ote den euskal literatura ia guztia, aldez edo moldez, euskal gatazkaz ari. Literaturak hain berezkoak dituen elipsiak, metaforak, irudiak, alegoriak eta hiperboleak, guztiak hartu ditu euskal idazleak gatazkari buruz aritzeko edo, ez arituz, aritzeko forma propio bat sortzeko. Horretarako arrazoi literarioak pisuzkoak izan daitezke, hainbat egileren obrari erreparatuta, eta arrazoi psiko-sozialak, berriz, gure haginlarien esku utziko ditut, gustuko duten gaia baita.

Baina, balizko psiko-soziologia baztertu gabe, orriotan aztarrika hasiz gero, gatazka aurkituko dugu; gatazkak, franko; literatura, barra-barra... baina nekez aurkituko dugu arrazoirik, jarraibiderik, tesirik. Generoaren teknika eta figura literarioez gain, aipagarriarik aurkitzekotan, arestian aipaturiko gatazkak nabarmenduko nituzke. Gatazka, noski, baina gatazkei buruz ari naiz,

1.- Azaldu nahi dudana hobeto ulertzeko, adibide bat emango dut argigarria delakoan. *Euskal kultura gaur* (Jakin, 1997) liburuan Joan Mari Torrealdaik euskal idazleen artean egindako inkestaren arabera, azken 20-25 urteotako 10 euskal obra «hoberenen» artean *Hamaika pauso, Espainolak eta euskaldunak, Ehun metro, Gizona bere bakardadean* eta *Ni ez naiz hemengo* zeuden. Hau da, hautatuen erdiak zuzen-zuzenean gatazkari lotuak zeuden (beste bostak *Obabakoak, Otto Pette, Narrazioak, Babilonia* eta *Azukrea belazeetan* ziren). Ildo berean, inkesta horren arabera, hamar idazle «hoberenak» Bernardo Atxaga, Anjel Lertxundi, Ramon Saizarbitoria, Joseba Sarrionandia, Joan Mari Irigoien, Koldo Izagirre, Txillardegia, Joxe Austin Arrieta, Joxe Azurmendi eta Juan Mari Lekuona ziren. Idazle horien obran gatazkak daukan pisua eztabaida ezina dela iruditzen zait (askoren gain -gehienengan, beharbada- elementu zentraletako bat dela esatea gehiegikeria denik ez dut uste).

Azkenik, generoen arteko desorekak aipatzen ditudalarik, esanguratsuak eta argigarriak iruditzen zaizkit liburu bereko 329-332 orrialdeetako datuak eta hausnarketak.

minuskulaz idazten diren horiei buruz. Literatura garaikidean ipuingintza landu duten eta lantzen duten idazle handiek beren ipuinen pertsonaiei biziarazi dizkieten konflikto horien antzekoak. Konflikto horiek, hobeto esanda. Berezirik aurkitzekotan, gatazka txiki horiek gure gatazka «handiarekin» daukaten harremana da. Horixe dute gure idazleen lanek berezkoa, exotikoa.

Hala ere, antologia hau apailatzerakoan hartu ditudan sorpresak, segur asko, irakurleak irakurtzerakoan hartuko dituen horiexek berak izango direlakoan nago. Laburbilduz, hainbat urte, liburu eta argitalpenetan barreiatutako ipuin eder hauek banaka irakurtzerakoan pizten duten miresmena eta batera jartzerakoan sortzen duten txundidura. Horra liburu honen opari pozoitua.

Esanak esan, antologia hau osatzeko irizpideak ohikoak izan dira. Alde batetik, gai bati lotutako ipuinen antologia denez, ipuinak hautatzeko irizpide nagusia izan da lanen gai zentraletako bat konbentzionalki euska gatazka deitzen dugun hori izatea. Bestetik, normala denez, hautaketa egiteko beste irizpide nagusia ipuinen maila literarioa izan da.

Bi irizpide nagusi horiei jarraitu natzaie, beraz, liburua egiteko, eta lanean murgildu ahala, erabakiak hartzen joan behar izan dut arazoak sortzen joan zaizkidan heinean.

Gure gatazkaren erro historikoen inguruko balorazio historiko-politiko batekin harremanik ez daukan erabakia izan da antologia garaikide bat egitea, maila guztietan gainera. Ildo horretan, azken mende erdian –erraz esaten da gero!– suertatu diren gertakariei bu-

ruz aritzen diren ipuinak aintzat hartu ditut, nahiz eta, praktikan, ez dagoen 70eko hamarkadatik atzera egi-ten duen ipuinik. Horrez gain, beste irizpide guztiak betetzen zituen arren, aurreko belaunaldi batekotzat jo dezakegun idazle baten lana baztertu dut, antologiari batasuna kentzen ziolakoan.

Liburua desorekatu zezakeen beste elementueta-ko bat lanen luzera da, eta hala, bada, irizpide hori ere aintzat hartu dut. Anjel Lertxundiren «Hausturak» ipuina da luzeena; desiragarria litzatekeen baino pix-ka bat luzeagoa da, egia esan –muga, inondik ere–, bai-na kalitateari erreparatuta, ezinbesteko iritzi diot. Ipui-nik laburrena, aldiz, Joseba Sarrionandiaren «Xakea» da; arestian aipatu dugun irizpidearen arabera ezin baztertuzkoa, nire ustez.

Lan gehien nolakotasuna kontuan hartuz, erre-a-lismora lerratzen diren ipuinak hautatu ditut. Nire ha-rridurarako ia azpigenero bezala aurkitu dudak eus-kal gatazkari buruzko ipuin fantastikoak (izenburu horren azpian nagusiki narrazio futuristei buruz ari naizen arren) baztertu ditut. Zalantza ugarirekin baz-tertu ditut halaber ipuin liburu izan daitezkeen baina egileak berak, argitaletxeak eta kritikak eleberrizat hartu dituzten hainbat liburutako narrazioak.

Azkenik, euskara batuak azken urteetan izan duen bultzada dela medio, ipuinak zuzentzeko aukera aztertu behar izan dugu. Hasieran egileei hiru aukera eskaini zi-tzaizkien arren (bere horretan argitaratzea, egileak be-rak zuzentzea, argitaletxeak egindako zuzenketa propo-samenaren gainean egileak zuzentzea), azkenean egile guztiak euskara aldetik eguneraketa behar zuten ipui-

nak zuzentzea erabaki dute, haien kabuz edo argitale-txearekin batera.

Zoritzarrez, hainbat arrazoi direla medio, liburu honetatik kanpo geratu dira Koldo Izagirrerren «Hildakoa-ren aboza» ipuina (*Mendekuak*. Susa, 1987) eta Mikel Hernandez Abaituaren «Lehen ahotsa» ipuina (*Ahotsak*. Erein, 1996). Liburu denda edo liburutegietan liburu horiek lortzea erraza denez –lehen bigarrena baino errazago, egia esan–, osagarri gisa ipuin horiek irakurtzeko gomendatzen diot irakurleari.

Hitzaurrea amaitu aurretik, ohi denez, liburu hau egiten lagundu didaten guztiei eskerrak eman nahi dizkiet. Lehenik eta behin, antologia honetan parte hartu duten egile guztiei; egin didaten harrera ezin hobeagatik eta jarri dizkidaten erraztasun guztiengatik. Elkar, Susa, Alberdania, Erein eta Ataramiñe argitaletxeetako eta *Argia* aldizkariko editoreei, emandako laguntzagarrik: Xabier Mendiguren, Gorka Arrese, Inazio Mujika Iraola, Iñaki Aldekoa, Olatz Caminos eta Xabier Letona. Eider Rodriguez idazle eta lagunari, bera gabe askoz zailagoa izanen zatekeelako lan hau egitea. Azkenik, zuri, liburu hau irakurtzeko gogoz zabiltzan irakurleari.

Iruñean, 2008ko irailean

Hausturak

ANJEL LERTXUNDI

Aise eman zenidan eskua
(Erein, 1980)

NIRE AURREAN IKUSI NUENEAN, gaixotasun batetik atera berria den gizona iruditu zitzaidan. Poltsa handi bat zeraman esku batean eta manta zakar bat bestean. Poltsa hartu nionean, Maya aurreratu zitzaion musu bat ematera. Besarkatu zirenean, ez haut alferrik galduta ikusten esan nion eta zer ote dakik erantzun zidan, ez zitzaidan erantzuna gustatu, haserrea nabarmendu nien hitzoi, eta poltsa hartu eta autoan sartu nuen, eta nik, Anttonek, ez dakit zergatik hasi behar duen Fermin honek bere betiko komentario aluekin, ez diat itxura txarrik ikusten, ez, noski, hotel eder batean sei hilabete luzetako oporraldia igarotzen egon denaren itxura zeukaat nik, no te jode!, dena den, izan dezagun festa bakean, Maya, emadazu zigarro bat, eta zigarroa eman diodanean, zirrara ttipi bat nabarmendu diot Anttonen eskuari, egoeraren tamaina oraindik hartzen jakingo ez balu bezala, esku hotzak, distanteak nabaritu dizkiot, sei hilabete besterik ez dira eta hain urrutia egiten zait desioa, Antton ere autorantz doa eta gauzak sartzen lagundu dio Fermini, Anttoni ez zaio ezer

ahaztu, barnean gordetzen du oraindik Ferminetikiko etendura, ez dakite zer esan elkarri eta nik neuk ere ez dakit isilune hau nola ebaki, une honetan ezer sentitzen badut, ezer apartekorik esan nahi dut, ezina da, esango nukeen hitz bakoitza hutsa, baliorik gabea, kursori deritzat, oroimen konpartituetan jardun nahi nuke Anttonekin, eta nik, Anttonek, eguzki hotz honen mehetasuna sentitzen dut bizkarrean, patioan nireagoa zen, haragiari itsatsia, josia neukan zerbait, baina orain arrotza zait eguzki hotz hau, beste bat aurkituko dudala aurrez dakidalako-edo zait arrotz, noski, eta lehenbailehen abiatu nahi nuke hemendik, nahi duan, Antton, eta autoa martxan ipini nuenean zakur batek zaunka egin zuen urrutian, sei hilabete luzeen gibelean.

*Batzuk ez dute nahi sinestu Madrilen pozik nagoe-
nik. Ezin dute ulertu mendiz-kanpo zoriontsu naite-
keenik. Ni mendikoa naiz. Ezin didate barkatu Ma-
drileratze hau. Zertarako Madrilera, zeren bila?*

Bitoriano Gandiaga

—ESKERRIK ASKO, ANTTON —esan zion une batean Ma-
yak. Ferminék barre egin zion, ezkerreko intermiten-
tearekin batera, eta gasolindegi batera abiatu zen.

—Horrek ez din «ez horregatik» erantzungo. Hori
dun, hori, gizon zekena!

—Super; sí, lleno.

—Isil hadi —eraso zion Anttonek—. Ez al duk aski
lan autoa azkarxeago eramaten?

Ferminék gasolina ordaindu eta autoa berriro ere
martxan ipini zuenean, lehenbailehen afaltzeko toki
bat aurkitu behar zutela erabaki zuen.

Mayak laguntza guztia eskaini zion Anttoni, honek *hu-
ra* egitea erabaki zuenean. Ez zegoen, beraz, ezjakin-
tasun osoan. Diskrezioa eta laguntzeko gogo aparta ba-
zituén ere, Anttonek ez zion gauza handirik aurreratu.
Ez da, Maya, ezer gertatuko. Eta Mayak gero eta gu-
txiagotan ikusten zuen Antton. Kezkaturik? Bai, zera;
gauzak ongi egin nahiaren grina.

Eta kartzelatu zutenean, Mayaren izena sarritan entzun zuten Anttonen belarri minberatuek.

Abendua zen.

Zumaiako moilaren puntan zeuden biak, olatuaren indarrari so. Indar harrigarri hura neurtzen edo.

—Hango hura bete-betea lehertuko zaigu —esan zuten Mayak, olatuarekiko propietatea bereganatuz.

Anttonek ez zuten blai eginda geratzeko gogo handirik:

—Hemen geratzen bagara, seko bustiko gaitu!

Hamar metro inguru falta ziren olatua hormaren aurka lehertzeko. Mayak gerritik heldu zion Anttoni. Kaio pare bat jarraitzen zitzaion olatuaren apar hai-zetsuari.

—Egun bat, egun bat denez, zer arraio, gauden hementxe!

Olatuak, horma zabalaren aurka lehertu, eta bete-betea busti zituen biak. Mayaren ile luzeek bere tolesdura galdu, eta begien gainean geratu zitzaion ilemataza zabala. Goitik beheraino bustirik zeuden biak. Autora joan eta hondartzan erabilitako toalla batez lehortu ziren.

Mayaren blusa bustiak tente-tente ageri zituen bularrak. Musu bat eman zion Anttonek.

—Eskerrik asko! —esan zion.

Eta oroimenean galtzen zitzaizkion azken bi hitz hauek ekarri zuten Antton Mayak esandako hitzetara.

Ferminek jira gogor bat egin behar izan zuten eskuin aldera, abiada osoz zetorren kamioi baten beldurrez.

—Zerri madarikatua!

Mayari begiratu zion Anttonek. Neskaren begiak galdurik zeuden leihatilatik ikusten ziren mendi bakanetan.

—Zergatik esan didazu hori? —galdetu zion Anttonek.

—Zer «hori»?

—Bai, eskerrak eman dizkidazu.

Mayak gorputz erdia bere baitan jiratu, eta Anttonen aurpegira begiratu zuen.

Maya ez zen inoiz fikzioen eta airean osaturik o ametsen zalea izan, jaso zuen emaitza guztia bide horretatik irristatzeko arriskuan topatzen bazuen ere, ez baitzaizkit inoiz fikzioak eta airean osaturiko ametsak gustatu, ohean sartu, berehala loak hartu eta hurrengo goizerako kezkarik gabe jokatu nahi zenuke, baina badakit, hamalau urtetatik ikasi nuen gauero iratzargailua ipini behar dudala eta goizeko zortzietan txirrinak jotzen duenean fikzioen arrisku eta tentaldi guztiak kentzen dituzu kamisoiarekin batera, ez baita erraza loari loa erantsiz bizitzea; horregatik, orain sei hilabete gertatua jazo zitzaigunean, loari lorik ez erans-tea erabaki nuen, Anttonek badaki nahi duenaren berri, pentsatzen nuen orduan, eta goiz hartan bertan nire kafetxea hartu nuen ohiko tabernan, egunkarian berria hamaikagarren aldiz irakurtzen nuen bitartean. «En la madrugada de ayer fue detenido Antonio Cela-ya Barrenechea, uno de los presuntos autores...» eta nik, Anttonek, ez nuen berria egunkarietan irakurri,

poliziaren begietan, baizik amairik gabeko gauetan eta oroimen galarazian.

Autoa Madrilgo sarrerako autobide batetik zihoan. Eguzkiak, oraindik, bete-betean ziharduen, ez zen hodei bat bakarra ikusten zeru urdin eta zabal hartan.

—Ireki ezak leiho hori pixka bat —eskatu zuen Anttonek.

Ferminnek leihoa irekitzen zuen bitartean, Mayak esan zion Anttoni:

—Ez duzu, nonbait, kontatzeko gauza handirik.

—Izango dugu betarik.

Maya eta Antton autoaren atzealdeko eserlekue-tan zeuden. Fermin txantxetan jardun zitzaien ibilaldiaren une aspergarrienetan, atzealdeko ispilua musuzapi batez estaliz.

—Ez hadi kabroia izan —erantzun zuen bitan edo hirutan Anttonek, Ferminnek algara biziz erantzuten ziolarik.

Gaua badatorrela eta eguna aharrausika hasten den unean jaitsi ziren hirurak autotik, inguru guztiari begiraturuz. Ez zegoen inortxo ere. Hoteleko zelai iharturantz abiatu ziren. Zeruak, inondik ere, euria zekarren. Hiru lagunak hotelean sartu eta ohe pare bat eskatu zituzten.

—Mutilzaharrarena egitea tokatzen zaidak gaur —esan zuen Ferminnek.

Anttonek erlojuari begiratu zion. Afaltzeko garaia zen eta kartzelako arrantxoak gogoratu zuen. «Gaur, osteguna, garbantzuko pare batekin nahasirik azak» pentsatu zuen. Estrainio zitzaion eta zait guztia, e, gela honi kiratsa dario, eta garbantzukoak bi bakarrik ziren, bi eta lehertuak, egosten denbora gehiegi igarotakoak, e, gela honi kiratsa dario eta ez da nirea, hi garbantzukoak kiratsa berehala galtzen da hormako edozein harriren arima hezean, gaur arratsaldean esan digutenez, juczak ez du itxaropen handirik eskaintzen, gauzak argitu behar dira eta argitzen ez diren bitartean, bi garbantzukoak eta azak, eta horma honetako harriren batek jasoko duen kiratsa, ez da, ez nirea, hainbat urte eta hainbat urtetako nekea, eta hainbat urtetako nekearen kiratsa ez da nirea, zatiren bat niri tokatzen bazait ere.

Estrainioa zitzaion guztia. Eseriko ziren mahai batean eta haragia eskatuko zuten, arkumearena, e, eta, agian, Fermin animatzen bazen, baita jumilla onen bat ere. Eta, gero, postrearen garaian kafea hartuko zuten eta kafe garaian ere kafe bana hartuko zuten, ez, gaztarik ez, moteldu egiten omen zaitu, guk, kartzelan, sagar azalak jaten genituen.

Kontserjearen aurpegi aspergarri eta aspertua, poltsaren bila norbait etor zedin jotako txirrina, *belle époque*ko nortasunik gabeko koadroak, eta jangelarako atea.

—Bazegok norbait afaltzen. Ikusten? Ez duk hain berandu —bota zuen Ferminek.

—¿Van ustedes a cenar? —galdetu zuen kontserjeak.

—Todo lo que tengan en la cocina.

Barre egin zioten denek Anttonen ateraldiari. Jangelan pana beltzez jantzitako bi nekazari ari ziren afal-

tzen. Argi soil eta mehe bat besterik ez zegoen piztuta jangela zabal hartan. Mayak aski diskretua iruditu zitzaion mahai bat hautatu zuen, leiho baten parean. Eseri zirenarekin batera piztu zituzten argi guztiak. Bi nekazariak ez zuten beren plateretatik begirik jaso.

—Diru askorekin gatzela pentsatu ditek —keinu egin zien bere lagunei Ferminek.

—Hirea beharko dik izan —Antton alaiago zegoen. Lasai afaltzeko aukerak eta kartzelako garbantzua eta azen oroimenak animua ekarri zioten nonbait.

Bero zegoen. Bizkar gainean zamatsu topatzen den bero lehor eta geldi horietakoa. Leiho handi bat zabalik zegoen eta Avilako harresia ikusten zen bertatik. Etxeetako argiek inguru erromantikoa eskaintzen zioten harresiari, baina harresia bera ez zen ja ikusten, imajinazio pittin bat ipini behar zen horretarako.

—Avilako harresiak! —bota zuen Ferminek; Anttoni begiratu eta isiltzea erabaki zuen.

—Nirearen alboko ziegako mutilaz oroitzen nauk —esan zuen Anttonek.

—Politikoa? —galdetu zuen Mayak.

—Tira, lapurretan harrapatzen zaituztenerako, badakizu zer egin.

Zuk badakizu, Maya, zer gertatzen den horrelakotan. Ez zara zeure buruaz fidatzen, badakizu zer nahi zenukeen baina ez duzu sekula pausorik ematen, irris-tatu egiten zaizkizu erabakiak, eta zenbat eta sarriago hartu erabakiok, orduan eta irristakorrakoak zaizkizu, zutik iraun nahi duzu, aitak, zu txikia zinenean, zuhaitzen bat aldatzen zuenean tinko ikusten zenuen enborra eta luze iraungo zuela esaten zizun aitak, eta egoe-

ra horretan, Maya, tinko ikusten zaituztenek ez dakite ez zarela zuhaitz bat.

—Beste modu bateko bizitzarako egina zegoen hura –erantsi zuen Anttonek–. Ez zen frakasatu bat, bai zera!, tipo bizkor eta inteligenatea baizik. Zeraman bizitzak bizkortutako tipo horietako bat.

Baso bat ardo edan zuen kolpean. Hasieran gogor egin zitzaion zurrutada, burua ere arinago nabaritzen zuen, baina ohitu beharra zuela pentsatu zuen.

—Orain dela gutxi zer esango ote zidan, eta inbidia zidala, nori eta niri, «tú, por lo menos siempre has sabido lo que tenías que hacer». Ez nion ezer erantzun. Baina nik zer egin behar nuen inoiz garbi ikusi dudana ala ez, oraindik garbi ez dakusat.

Bai, Antton, berdin jarraitzen duk hik, zalantzaren aitzakiaz zuhaitz sendoaren ustetan, eskolara elkarrekin joaten ginenean bezalatsu, hire itzala behar genian guztiok hi haziko bahintzen, eta kontuz hiri aurka egitearekin, hobe genian, bai, konturatzen ez ginenarena egin.

—Isil hadi! –ebaki zion Ferminek.

—Isildu? Zertarako? Zuek, nire bila etorri zaretenean, sei hilabete hauetan nire imajina faltsua duzuelako izan duk.

—Horregatik bakarrik? –galdetu zuen emeki Mayak.

—Barka, Maya, agian exajeratzen ari naiz, gauzak neurritik kanpo ateratzen, eta zure kasuan gehiago. Baina kartzelako garai honetan, eta luzeagoa espero nuen, idealismoaren aurkako postura kontziente eta konstante bat hartzen ikasi dut (eta pedantea, pentsatu

zuen Ferminek). Alditan, zure bihotza ilusioz betetzen duzu, txikitan patrika karameluz beterik eduki nahi zenuenean bezala edo ohean zaudenean bezala, gero, praktikan, oso beste aldera gertatzen zaizkizu gauzak. Eta ez behin edo bitan. Beti gertatzen da horrela.

Ferminek galdua zuen elkarrizketarako arreta guztia eta aurrean zuen zopa jaten hasi zen, Anttonen hitzak urrutian entzungo balitu bezala.

Arkume txuletak jaten hasi zirenean, beste aurpegi berri batzuk sartu ziren hotelean eta ertz batean zegoen billarrean hasi ziren jolasten. Jangela hotsez bete eta irudi gizakoiagoz jantzi zen.



Bizitzarekiko arritmiak ez omen du hutsunerik uxatzen esan zion behin Anttonek Fermi, eta nik barre egin nion Anttoni, haren ateraldiek beti liluratzen ninduten, hartzen duzu hiztegi bat eta hitzak hitzei josi eta agian sortuko duzu pentsamendu sakonen bat, zuk zeuk pentsatzeko ahalmen handirik ez bazenu, asma-kizuna sarritan erabilia da antza denez, eta Anttonek bizitzarekiko arritmiak ez duela hutsunerik uxatzen esan zidanean barre egin nion, ze koño, sarriegi haserretu gara elkarrekin, frase bat gora ala behera esutzen hasteko, eta orain, kafea hartzen ari da Antton sei hilabeteren ondoren eta berdin jarraitzen du, bada bizitza txaketa dotoreaz janzteko gogoa, nik beti esan ohi diot alferrik habil Antton, eta agian arrazoi duk Fermin, leihoa irekitzen denean haize freskoa sartzten zaik haize freskoa den egunetan, eta gainerakoe-

tan haize freskorik gabe geratzen haiz, ezin duk neurtu hire asmoa eta asmoaren betekizuna, baina Fermin, hik badakik kantatzen hasten garen bakoitzean zurrut egin ondoren hasten garela, eta, azkenean, gu bion arazoa berdin-berdina duk, nik hitzei eta hik begiradei erantsi nahi zieagu esanahi aparta, hitzek eta begiradek berez esanahirik ez balute bezala, eta ni Mayarekin hasi nintzenean aski huen hitzerdi bat esatea, baina bai zera!, gorde-gordean ezkutatu hituen barrengo arrak orain ez hik eta ez nik errurik ez duguneko tar-te hau mantentzeko, ez, ez duk Maya konturatzen, ni ongi konturatzen naiz autoan izan dugun isilune luzearen arrazoiak baina ez naiz ni tokatzen ez zaidan borroka honetan sartuko, Ferminnek zerbait gordetzen du barruan, Anttonek badaki zerbait horretaz baina ez dut inoiz ez batekin ez bestearekin horretaz hitz egin eta ez eta hitz egingo ere, Madrilera bitartean Fermin beste bat zitzaidan, adiskide normal eta estimatua, baina orain fidagaitz bihurtu zait, bion artean jangela honetatik ikusten den harresi hori balego bezala, eta nik badakit une honetan ezer gutxi eskatu behar diogula Anttoni, arazoak arazo, Ferminnek hitz egin behar luke eta Maya hotz eta urduri nabaritzen dut, ez dut uste sei hilabeteren ondorena izango denik, bistan izan dudan bakoitzean oso bestelakoa gertatu zait Mayaren begirada bakoitza eta gaurko honetan begiradak zerbait galdua, zerbait etena dauka, eta etenduraren arrazoa Fermin da, ba, niregatik, joka ezazue nahi duzuen bezala, ez natzaizue ni bertan behera urrikaltzen hasiko, nire isilunetik aparte zerbait gehiago behar baduzue ez konta nirekin, Maya, ez eska la-

guntzarik, Antton, bakoitzak badu bere bidea, hirurok geurea hautatuta dugu eta joka dezagun antzerki hau leialtasun osoz, leialtasunak ez baitu norberak deza-keenetik aparte ezer gehiago eskatzen.

II

Oheratzeko garaia iristen zitzaion bakoitzean, bakardadearen arnasa entzuten zuen manta pean. Iragan egunari agur egin behar zitzaion eta hutsune batean murgildu.

Mundu guztia gau guztirako agurtu behar zuen. Ametsa eta errealtatea, haizearen freskotasuna eta iturri gaizki itxiaren tantaka erritmikoa agurtu behar zituen egunero. Ezerezean murgiltzeko, hurrengo egunerako plan jakinik gabe, egun bat gutxiago kartzelatik irteteko, egun bat gutxiago eta hutsune sarkor bat gehiago sorbaldan.

POSTRE GARAIKO KAFEAREN ONDOREN kafe garaiko kafea hartu zutenean, lagun asko zegoen hoteleko jangelan, egunerokotasunaren atsedean uneak kez horniturik.

Billarrean ari ziren batzuk eta kartetan beste zenbait. Botoi batetik erlojua patrikaraino zintzilikatzen zitzaion agure baikor bat inguratu zitzaien mahaira.

—No sois de aquí.

—No.

—¿Qué idioma habláis?

—Euskara.

Ferminek erantzunak ematen zituen bitartean Antton eta Maya frantsesez hitz egiten hasi ziren elkarren artean.

—Estos vascos son capaces de hablar hasta en ruso a poco que se empeñen –esan eta lagunengana jo zuen.

Handik pixka batera begi asko ziren hiru adiskideren mahaira so.

—Zer nahi dute orain zeken horiek? —bota zuen Anttonek.

—E, e, ez al hintzen ba internazionalista? —erantzun zion, barrez, Ferminék.

—Hoa popatik hartzera!

Eztabaida asko izan zituzten elkarrekin Antton kartzelatu baino lehenago. Anttonek, egia esan, ez zuen bere eginkizunez ezer askorik aditzera ematen, baina Fermin eta Maya berehala konturatu ziren haren joan-etorrien zentzuaz.

Ez zuten inoiz garbi hitz egin, eta Anttonek ez zion sekula ezer garbirik adierazi Fermini. Baina honek ez zuen okasiorik galtzen galderaren bat edo beste botatzeko.

Eztabaida luzeetan amiltzen ziren. Jeneralean, auzia edozein egunerokotasun arruntetan oinarritzen zen. Baina ondorioak beti izaten ziren bien arteko hausturaren seinale.

Hamabost urtetako adiskidetasuna ez da une batean hausten, baina badira haizeak, izaten dira ekaitzak adiskidetasun tinkoena ere maldan behera ipintzen dutenak.

Horregatik, behin Ferminék mesianismoaren hura bota zionean, Anttonek ez zion hilabete luzean kasu handirik egin.

—Zoazte, itsasoa zeuena duzue –esan zien Ferminek abuztuko guerdi berotik.

—Bainatuko al gara? –galdetu zion Anttonek Mayari.

Taldean ziren beste neska batzuk ere, baina Antton eta Maya bakarrik jaiki ziren hondarretatik.

—Ura epelxea badago, bai –erantzun zion Mayak.

Anttonek ez zuen erantzun. Olatuei begira zihoan itsasorantz.

—Zer tankeratakoa iruditzen zaizu Fermin? –galdetu zion neskari.

—Bion arteko zubi bat besterik ez naiz oraingoz –erantzun zion barrezka Mayak lehenengo olatuari osoki ematen zitzaiozlarik.

—Bada, bestela, gizon bat betilun ipiniko litzaida-keena.

Ur azpian elkartu zirenean, harea mugitu zuen zurrunbiloak. Arnasa hartzeko urgaineratu eta musu eman zuten hondartzaratu zirenean. Fermin liburu bat irakurtzen ari zen eta ez entzunarena egin zuen.

Istorio hauek asko atsegin zitzaizkion Mayari eta ongi puztu zuen gertatua. Ferminek ez zuen ezer esaten eta liburuan murgildurik jarraitzen zuen.

Antton inguratu eta galdetu zien neskei:

—Orduan, ez duzue bainatzeko gogorik?

—Berriro? –galdetu zuen Mayak.

—E, e –eraso zuen Luisak–. Itsasoa zabalegia da zuretzat bakarrik izateko.

—Luisa, ez hadi sar –hartu zuen parte Enkarnik–. Itsasoa ez dun inoiz zabalegia urgaineratzean musu bat hartzen dunanean.

Anttonek eta Mayak ez entzunarena egin zuten Enkarniren hitzak entzun zituztenean. Anttonek nabaritu zien zerbait nesken begiei baina Maya heldu zuen eskutik, babes gisa beste ezertan pentsatu gabe.

—Fermin, ba al hator?

—Neskak, karabina baten aurpegia al daukat? —galdetu zuen Ferminek.

Eskutik hartu ninduenean, goitik behera begiratu ninduen, handikeria ala ezjakintasuna, ezin nuen erabaki urgaineratzean musu bat hartzeak bete baninduen ere, ondoren ez nuen Ferminen begietara hitzik zuzendu, eta neskek barre egin zuten Ferminen ateraldiaz, ni jokoaren parte bat nintzen, baina arriskatzen ez baduzu, jokoa galdua duzu, nahiz, ene ustez, Anttonek ez zuen ezer arriskatu, ezjakintasunez jokatu zuen eta nirekin topatu zen, berdin gertatuko zitzaion Luisa ala Edurnerekin, baina ni animatu nintzen eta ya está, Fermin ez da inoiz zezena adarretatik hartzen duen gizona izan eta zer gertatuko zain geratzen denak pentsatu behar luke denbora ez dela botikarik hoberena, maitasun kontuetan behintzat, baina zuk, Maya, bazenekien nire berri, ni neu garbi agertu ez banatzaizu ere, beldur diot zure isiltasunari esaten zenidan eta hitz horietan duzu erru guztia, beldur bazenidan bazen beldurraren arrazoiren bat eta ez zinen inoiz arrazoi hori bilatzen ahalegindu, bi mutil izan dituzu zure aurrean aukera egin eta haiekin jokatzeko, orain pozten naiz egin zenuen aukeraz, jolasketa baitzen zure desio bakarra eta orain sufri dezala Anttonek jolas horren amaia, ez bai-

tut inoiz garbi ikusi Mayak zer zor didan, aukera zezakeen Fermin, nik haren bidez ezagutu nuen Maya, baina ez da aski adiskide gisa jokatu ahal izatea, erabaki bat hartu behar duzunean, erabakiak muga guztiak hautsi behar ditu, harresi guztiak apurtu, eta ez dut garbi ikusten zer jokabide jarraitu behar nukeen Mayarekiko, agian aski da zurrunbiloaren jira ezagunari jarraitzea baina beldur naiz, sei hilabeteren ondoren zail da erabakitzea eta Fermin dago gainera, ba, Anttonek nahi duena egin dezala, konturatzen ez denez errazagoa zaio niri baino, eta nik ez dakit zer egin, nahiz Anttoni, nahiz Fermini min egitekotan, hobe nuke orain bertan aurrean dudan kafea hortxe utzi eta biak agurtu.

—Kafea hozten ari zaizu, Maya —esan zuen Anttonek.

Billarreko hotsak amaituak ziren. Jangelan ez zen inor geratzen. Zerbitzaria hautsontzia husten ari zen eta hiru adiskideak mahaitik jaiki ziren.

Gelak lehendabiziko pisuan zeuden. Zalantza izan zuten nork zein gela hautatu. Bi gelak ikusi zituzten lehendabizi. Bi geletako leihoek toki berdineran, hotelaren aurrealdeko zelai ihartura, begiratzen zuten.

Gelek ez zuten nortasunik. Ohe bana, mahai ttipi bat eta kolorerik gabeko alfonbra. Bainu eta komuna gela bakoitzaren albo batean.

—Zein gela aukeratzen duzue? —galdetu zuen Ferminen.

—Berdin duk. Hauxe bera eta kito! —erantzun zion Anttonek.

Zigarroa piztu, leihora inguratu eta egunaren heriotzari begira geratu zen Antton. Maya bainugelak zegoen eta dutxaren hots zalapartatsua entzuten zen.

Zoli eta egiazkoa den mendi-besangaren eta lur lauen arteko oreka uztartuan kokatuta dago Avilako hiria, eta haren orrazea begizatzen zen leihotik. Adaja ibaia lur horixkatuaren ildo jakina ez zen mendetako iraupen jori eta isilaren arrasto apal bat besterik, gau hartan galduriko orratz luzearen eztenkada lasaiaren ubera.

Hiriaren harresia, gaua gorixkatzen zuten fokuek argiturik, galgatua eta umila eskaintzen zitzaion gau beroaren zamari.

Haizerre bat zetorren Gredos aldetik, gauaren bide iruntziratuetatik.

Anttonen zigarroaren keak bat egiten zuen berehala gauaren usain bereziarekin. Eta berriro ere gelaratu zenean eta bainugelako uraren hotsa entzun zenean, «sei hilabete besterik ez eta distantzia ikaragarri hau!» pentsatu zuen.

Dutxako uraren hotsa gauaren printzekin ito zenean, Antton bainugelara inguratu zen:

—Maya, non dituzu pospeloak?

Alferrikako galdera zigarroa piztu berria zuenarentzat. Tamaina hartu nahi orekatsu hartan Antton beldur zen haria non eta nondik etengo.

—Nire poltsan bada kaxa bat.



Zer moduz zaude?, galdetu zion Anttonek Mayari, ongi gogoratzen naiz une hartaz, Antton beso hutsik zegoen udazkeneko arratsalde haizetsu hartan, eta Maya begien aurrean ikusi zuenean, neska soinek o estanpatu batez jantzirik zegoen eta gorputza neurri mugatuetan atzematen zen soinekoaren azpian, zer moduz zaude?, eta Mayak bere burua erortzen utzi zuen, ez zitzaion aurpegirik ikusten, lurrera begira geratu zen, emekiro mugitu zuen gorputza, ez zuen Antton kezkatu nahi, tonika bat hartuko nuke eta Antton mostradorera joan zen, Maya eta ni bakarrik geratu ginen kadira gorri eta leun haietan eseririk, ez da zuk pentsatzen duzuna, Fermin, esan zidan, keinu batek desegin zuen Mayaren aurpegi ezti eta lasaia, Antton tonikarekin bueltatu zenean besoa pasatu zuen neska gerritik, isilune luze batek lagundu zion Mayaren egarriari, basoa hustu zuenean hobeto al zaude orain?, galdetu zion Anttonek, neska begiek galdera hil zuten eta gerrian zuen eskua kendua zuen, ez dut ezer, hutsune bat sabelean, besterik ez, eta Anttonek ez zuen kezka izateko betarik ere, hutsune bat sabelean, besterik ez, erantzun nion, kargantea zegoen Antton egun hartan eta ongi dago kezkatzea, emakumeoi asko atsegin omen zaigu gizonezkoen babesa baina hori gizonezkoek asmatu duten beste tramankuluñoño horietako bat besterik ez da, egun haietan ez nintzen ongi sentitzen, bale, baina Anttonek okerrago ipintzen ninduen bere galdera etengabeekin, Maya, zer

moduz zaude?, pasatu al zaizu?, lasai zaitez, ez da ezer, berak zuen lasaitzeko beharrik handiena, hotza omen naiz, hala esan zidan, eta zer nahi zuen, nire burua haren bularrean ipini eta haren laztanen zain geratzea?, gainera Fermin zegoen, ez dakit barre egiten zigun ala gutaz urrikaltzen zen, ez nintzaien urrikaltzen baina titi-haur bat bezala portatzen ari zen Antton eta barrugarria iruditzen zitzaidan, hala esan nion Mayari behin, erraz aldatzen zen neskaren tenperamentua, edozein emoziok txunditzen zuen, eta hori zekien batek edo jakin behar zuen batek ezagutu behar zuen baita ere horrelako tenperamentu bat aldakorra dela oso eta berehala pasatzen dela samurtasun jorienetik haserre zakarrenera, jakin behar zuen horrelakorik Anttonek baina titiko ume bat baino okerrago ari zen portatzen, eta egun haietan Mayak gezurretan jardutea hautatu zuen eta ez diot jarrera honi ezer aurkakorik topatzen, Antton beti izan baita mostradorera joan eta tonika eskatzeko prestatzen den gizon horietakoa, zer moduz zaude?, galderari erantzuteko, berotasunaren ondorengo daldara beldurtia.

Etorkizunak gizarteragotzen laguntzen digula jakiten dugun neurrian hasten gara gero eta itxaropen gehiago galtzen. Mahai gainean irristatu den hautsa, leihatilatik sartzen den argiaren leuna, aire ezagunaren usain etxekoia. Dena da bizitzeko motiboa, bizitza puzten eta globo bihurtzen ez den neurrian.

BATA ARIN BATEZ JANTZIRIK IRTEN ZEN dutxatik. Anttonen ezpainak keinu urduri batean mugitu ziren, irribarre izan nahi zuenaren ahaleginean. Maya leiho pareraino joan, tabakoa eta pospoloak hartu eta gelaren erdian zegoen ispilu handi baten aurrean eseri zen; orrazi zabal batez bere ile bustia pasatzen hasi zen. Keinua eta modua jakin eta neurtuetan ari zen orrazten, ispiluaren behar handirik gabe. Mahaitxo gaineko lanpararen argia ez zen lainoxka ilun bat besterik ispiluaren kristalean.

Isilunea luzeegia zitzaion Anttoni. Hala ere, hitzei baino gertakizunei beldur gehiago zien mutila zen Antton. Ez zuen une haien lilura hausteko adorerik. Nagusi zitzaien biei beldur zioten gauaren isila. Antton ohera inguratu eta ertzean eseri zen.

Maya orraztu zenean, Antton bere arropak eranzten hasi zen. Maya bata kendu eta biluzik geratu zen. Gorputz biluziak lanpararen errainu xumearen itzalgunerok bereganatu zuen. Anttonek eskua luzatu

zion eserita zegoen tokitik. Maya, hitzik gabe, barnea kanporatuko zion keinurik gabe etzan zen ohe gainean.

Antton neskaren bi hanka biluzien artean belau-nikatu zen eta hala geratu zen une labur batean.

—Azkenaldi honetan gauzak baretzen hasiak daude —esaten zion Mayak kartzelara joaten zitzaion bakoitzean— laster izango zara kalean.

Anttonek ez zuen erantzuten. «Ya mataron la perra pero quedan los perritos» esaera irakurria zuen nonbaiten.

Bisitaldietako elkarrizketak laburrak izan arren isilune ugariz ebakiak izaten ziren. Ez zen, Anttonek sarritan pentsatzen zuen bezala Mayaren harrera gain-beheratzen ari zelako, harrerak inoiz habe sendorik izan ez zuelako baizik.

—Ba al duzu Ferminen berririk?

—Belagua aldera joana da oporraldi hauetan.

Sentimendu nahasiak bizitzen zituen Anttonek Ferminen gorabeherak ezagutzen zituenean, gizaki bakoitza ardatza da, bizi duen guztiaren, inguruaren eta bere kasa ere ardatz direnen ardatz da gizaki bakoitza, eta Antton burdinazko sare lodi baten atzetik zegoen, Maya metro bat urrutirago zuen irribarre hotza besterik ez zen eta Fermin Belaguan zegoen oporraldiak pasatzen.

—Zergatik ez zara zu ere joan?

—Ez nituen Ferminen oporkideak ezagutzen.

—Ya mataron la perra pero quedan los perritos.

—Zer?

—Barka, ezer ez. Hemen kantatzen dugun abesti baten zatia da.

—Antonio Celaya Barrenechea, de veinticinco años de edad, soltero, estudiante con domicilio desconocido, es condenado a dos años de cárcel.

Juezak begiak jaso zituenean Anttonen ama negarrez hasi zen. Aitak besotik heldu eta auzitegitik irten ziren.

—...Lo que dictamino con toda la autoridad que la ley me confiere.

Mayak agur egin zion begiekin bi poliziak aulkitik jaikitzen lagundu eta gelatik atera zutenean.

«Ostia, Venenos diagu orain» pentsatu zuen Anttonek polizia hura sartzen ikusi zuenean.

Ez zuen denboraren zentzurik, orduak hutsune mingarriak zitzaizkion, hasieran zituen kezkek baineran ito zizkioten, iraupena zen helburua, iraupena zen deia-dar bakoitzaren habea, iraupenaren izenean zituen ahazturik gainerantzeko irtenbide posibleak. Ez zuen uste, ez zuen sinesten bere gorputzak indarrrik gordezten zuenik handik irteteko aukerarik izateko.

—Ajá, sabía que algún día nos harías una visita —eta gibelaren parean sartu zion ukabila. Hots lehorraren zastada mingarria.

—Sabía que vendrías –eta beste ukabilkada.

—Lo sabía –eta gero eta azkarrago errepikatzen zuen poliziak hitzen eta ukabilkaden arteko erritmoa.

Antton lurrera erori zen.

—¡Hijo de la grandísima puta! –eta lurretik jaso zuen Venenosek belauna hankartean sartzen zion bitartean.

Belauna Mayaren hankartean sartu eta neskaren kontra etzan zen, besoa burupetik pasatzen ziolarik. Haren gerria, bernak, bularrak eta gorputz osoa laztantzen hasi zen.

Mayak esku bat luzatu eta argia itzali zuen.

—Adi –esan zuen Mayak behatz bat Anttonen ezpainetan ipintzen zuen bitartean–. Lasai hartzen duzun neurrian lasaituko naiz neu ere.

Anttonek salto bizi bat eman zuen lehendabizi, eta lurrera erori zen berriro.

Ez zekien zenbat denbora pasatu zen atean beste polizia hura ikusi zuen arte. Irribarre bat, besterik ez.

—¿Desde cuándo os conocéis? –galdetu zion beste poliziari.

—Desde que este hijo de la gran puta nació lo conozco.

—Cállate... –Venenos ez zen bere tokitik mugitu–. O sea que os conocíais.

— ...

—¿Has pegado a este muchacho?

—¡Y no revienta!

—¡Fuera de aquí!

Venenos irten zenean, argi txiki bat piztu zen Anttonen baitan. Gauak eta egunak bereizten ez zekieneko hartan, polizia berriak sorrarazi zion argi txikia izan zen gauzarik atseginena.

—No te preocupes. Es un hijo de perra. Si dices la verdad...

«Dios, istorio bera diagu» izan zen Anttonek pentsatu zuen azken gauza.

«Si dices la verdad...» zuen belarrietan, Mayak «lasai hartzen duzun neurrian lasaituko naiz neu ere» bota zionean.

Biak batera erori ziren ohe gainean Anttonek gerritik heldu eta elkar besarkatu zutenean. Mayak indarrez eskaini zizkion ezpainak. Anttonek mina sentitu zuen hortzetan haren mihia dastatu zuenean. Anttonek begiak itxi zituenean, Mayaren gorputzak, ezpainek, mihiak, usainak eta beroak kemen bizkorra eta aire freskoa zekarkioten Anttonen bihotz hezeari.

—Mon dieu, zein tontoak zareten gizonezkoak!
—esan zuen Mayak, eskuak ipurmatrailetan ipintzen zizkion bitartean.

—Zer ba? Zer nahi zenuke?

—Maitasuna, gizoño!

Min egin zion nonbait Anttonek. Neskaren gorputz guztiak jauzi egin zuen Antton haren sabel gainean etzan zenean.

—Kontuz! Gogorik izango ez banu, bata jantziko nuke berriro!

Apaizak izenez ezagutzen zituen espetxeratu guztiak. «Antton, tú eres de San Sebastián, ¿verdad?», eta kokotsetik heltzen zion esku lodi eta lerdan haiez.

—¡Le tengo dicho mil veces que me deje en paz, so mariconazo!

Apaizak mehatxuak botatzen zizkion orduan. Antton bezalakoekin ez zegoen bakerik, zerbaitegatik zegoen zulo hartan, zigor-ziegetara eramateko agindua lortuko zuen, hobe da aurrean moro bat euskaldun bat baino...

—¡Le tengo dicho mil veces que me deje en paz, so mariconazo!

—Kontuz! Gogorik izango ez banu, bata jantziko nuke berriro!

Antton hotz geratu zen. Mayaren sabel gainetik jaiki eta gora begira etzan zen eskuak lepazpian gurutzatzen zituelarik.

—Antton, mesedez! —esku bat ezpain artetik pasatu eta musu eman zion bularrean. Antton ez zen mugitu.

—Ez zaitetz horrela jar! Zer esan dizut?

—...

—Baina, Antton, gaur bezalako egun batean...

Mayari begiak urratu zitzaizkion eta negarrez hasi zen. Hortzak estutu eta ezpainak ireki zituen. Leunkiro esan zuen:

—Barka, Antton.

Ez zuen erantzunik jaso. Ohetik jaiki eta bainugelara zuzendu zen. Argia piztu zuenerako Antton pija ma janzten hasia zen.

Une hartantxe itzali zituzten Avilako harresietako argiak.



Kolpe batean ikasten duzu gaueko hamabiak zintzilikatzen zaizkizunean zutaz jabetzen den loa ez dela atsedena izango. Nahasmenduz bizi izandako une labur batzuen oroimen mingarria izango dela loa eta begietan mina sentitzeraino ixten dituzu gogor, eguneroko lo arrunta zutaz jabe dadin, baina ez da posible, imajinak eta sentimenduak kolpatzen zaizkizu zure irudimenaren zoko ilunenean, ezezagunenean, eta bainugelatik bueltatu nintzenean lo aurkitu nuen Antton, arnasa pausatu batean amildua, historiarik gabeko hutsune lokartuan, ohean sartu eta arreta osoz hartu nuen arnasa, ez nuen Antton esnatu nahi eta ezin nuen lorik hartu, musu eman nion aurpegian bere amets sakonetik beroaren laztana zela pentsatzeko moduan, ezin nuen lorik hartu halakoxea baitzen nire barneko asaldura.

Gertatzen zaizu borondate onenez esandako hitz baikorra zure aurkako ezpatarik zorrotzena bilakatzea. Gertatzen zaizu, zeren nahi duen guztia esaten duenak nahi ez dituenak entzuten omen ditu. Zorigaitzak zure barnea handitu eta jainkotu egiten du, egia da, baina hortaz arduratzeko denbora asko behar izaten duzu, hasieran mundua iluna zaizu, eskergaitza, ez zenuke sekula eguzkiaren berorik sentitu nahi, ez zenuke nahi horrelakorik sentitu, baina gero, eguzkiak sarritan berotu zaituenean, zorigaitzaren arrastoa iragana izaten da eta zuk barne-barnetik eskertzen duzu eguzkiaren beroa, une bakoitzak du bere unea, baina beste ezein unereren jabetasunik ez zaio egokitzen eta, horregatik, Anttonen arnasa geldia entzuten nuen gau hartan, nire pentsamendu korapilatuak askatu nahi nituen eta nire gorputza osorik eskaini baina une hura iraganean galdua zela erabaki nuen.

Erabaki egin nuen nahiz nire sentimenduek besterik agintzen zidaten. Beti duzu itxaropenaren arrasto bat hautsitako lokarriak ez duela hausturarik pentsatzeko. Beti duzu hautsi duzuna ametsetan hautsi duzula pentsatzeko arrazoia eta justifikazioa. Baina egunak pasatzen dira eta gero eta min gutxiago ematen dizu hausturak. Oroitzen zaren neurrian eta oroi-menaren sareetan erortzen zaren neurrian bakarrik segitzen du hausturak min ematen, lorik gabeko gauak eskaintzen.

Eta ez nuen lorik egin, musu eman nion aurpegian, ez zen mugitu, eta hotza sentitu nuen ezpainenetan.

*Urteak dira doinu hura entzun genuela. Melodia osoa bu-
ruan dugu baina ez dugu nota batzuk besterik kantatzen
asmatzen. Urteak dira, bai, doinua entzun genuela bai-
na behin eta berriro inguratzen zaizu doinua orduko
usain berdinak, antzeko dastapen, argi eta imajinak erre-
pikatzen zaizkizunean. Ez dira, noski, une berdinak bai-
na bai estaldura berdineko bizipen zehatzak.
Eta beldurak harrapatzen zaitu horrelakoetan.*

—NORA JOKO DUGU? Salamanca ala Valladolid aldera?
—galdetu zuen Ferminek neska gazte batek kafesnea
zerbitzatzen zien bitartean.

Ez zuen erantzunik jaso.

—Bale, orduan nire kontu uzten duzue erabakia.

—Jar gaitezen etxerako bidean —ebaki zuen lehor
Anttonek.

—Baina... horretarako okertu al ginen atzo Avila
aldera? Non geratzen dira zoko hauek ezagutzeko as-
moak?

Mayak ez zuen ahorik ireki. Kafesnea zurrutada
luze batean irentsi eta zigarro bat piztu zuen. Hama-
rrak ingurua zen eta eguzki-printza emankorrenek ar-
gitasun osoz estalia zuten jangela.

—Zer deritzozu, Maya? —galdetu zuen Ferminek,
hoztasun haren arrazoiak zeintzuk ote ziren pentsa-
tzen zuen bitartean.

—Zer?

—Norantz joko dugun galdetzen dut.

—Goazen Donostiara —erantzun zuen Mayak.

Fermin berriketarako gogoarekin zegoen, lo ongi eginak izaten duen bizitasunarekin sentitzen zen goiz hartan, baina ez zekien nondik jo, nondik hariari tenk egin. Ez zen isiltasuna apurtzera ausartzen Mayari begiratu zionean, irribarre tristea nabarmendu zuen haren ezpainetan.

—Beno, nahi duzuen bezala —gosaria zerbitzatu zien neskari deitu eta kontua eskatu zuen. Antton mantelarekin ari zen jolasten mantelaren laukiak bere behatz lodiez estalirik. Ez zuen denbora guztian mahaitik begirik jaso.

Larunbata zen. Ez ziren hogeita lau ordu Antton kartzelatik irten zenetik. Autoan sartu zirenean trafiko asko izango zutela pentsatu zuen Ferminnek. Mapa bat hartu eta zein bide hautatu galdetzen hasi zen. Antton eta Mayak ez zuten, nonbait, ezer erabakitzeke ez asmorik ez gogorik.

—Valladolidetik pasatu beharra daukagu —esan zuen—. Atzerako bidea egin beharko dugu Villacastine-raino. Gero, handik gora, ehun kilometro inguru gertzen zaizkigu Valladolidera. Ferminen hitz egiteko modua erantzunen bat espero duenarena zen.

—Han bermut bana hartuz erabakiko dugu aurrera jarraitu ala bertan bazkaltzen geratu.

Ez zuen erantzunik eta Fermin aspertzen hasia zegoen, nola ez naiz, ba, aspertuko?, ez diote elkarri hitzik esan, nik ez dakit zer gertatzen zaien, baina deitu nindutenean hiruzpalau egun elkarrekin pasatzeko deitu ninduten, horretarakoxe eskatu nuen jai lante-

gian, zertarako eta goazen etxerantz entzuteko, bi hauen artean betiko upeletik sagardoa, bizitzan dena ulergaitza da eta hala gertatuko da hiltzen garen arte, hori ulertzera iristen naiz, baina bi hauekin bizitza askoz ere ulergaitzagoa dela deritzat, baina, baina, nork ulertzen du hauen atzo gaueko begiraden irribarrea eta oraingoan hotza, larrua jotzeko hainbat misterio beharko balitz, jo eta kito, aurrenekoak izango bazinate bezala.



Gaua honelakoetan gertatzen den modura igaro nuela deritzat. Loak hartu ninduen eta kito. Kito zeren loarekin batera ezin nintzela lehertu baina bertan behera lehertuko nintzela amestu bainuen, usadioaren usainak ez du prudentziarekin zerikusirik loak hartzen zaituenean eta pijamaren galtzak bustirik topatzen dituzunean, musuzapi baten neurrian kabitzen da zure irrikaren zarata, zure sentimenaren harmaila gorena, ez da konplikatua, ez, aski duzu amets bat, amets horretan jira erotiko batek lokaturik harrapatzen zaitu, odola zainetan duzu irakiten, zurrunbilo beroa, gorputz osoa zure behatzetan bildu nahi zenuke pospolo kaxa bat zure esku ahurrean hartzen duzun erraztasun berberaz, isurgaia gai da oraindik baina haren be-roak bultzatzen zaitu osoki ematera, behatzak isurgai kizkurtzera, amets bat da, noski, baina benetan bizi duzun ametsa eta benetan bizi nahi zenukeen ametsa, ongi da, sinesten duzu miresten duzuna, miresten duzu zure ardatza, miresten duzu zure ardatzaren be-

roa mekanika harrigarri eta maitagarria zaizula, mekanika eta haren mekanismo biguna, hamabi urte nituenean pixa egiten nuela sinetsarazi nahi zidan amak, baina egunez, tankera hartako pixa egin nahi izaten nuen, eta ardatzaren azala erretiratzeko ahalegintzen nintzen baina mingarria zitzaidan azalaren kontu hura eta tankera hartako pixa egitera iristea eta ametsa beti errealitatea baino sakonagoa eta zuzenagoa dela deritzat orain ere, ametsa baita justifikatzen gaituen biziune bakarra ere, sei hilabete hala moduzko pasatu dituzu kartzelan baina orain amets bat izan delako us-tetan zaude eta hor tronpatzen zaizu, Antton barka...

—Zer?

—Leihoa irekiko al duzu mesedez?

Hor tronpatzen zaizu sublimazioa, Mayak esan bezala leihoa ireki behar baita.

Autoak kirrink egin zuen semaforoaren aurrean eta kolpe batean geratu zen.

—Ezker aldera hartzen baduzu Salamanca aldera zoaz, e?

—Bejondeizula, Maya, bide hau guztia Salamanca bueltatzeko egin dugula iruditzen al zaizu?

Mayak ez zion erantzun.

—Bazkalduko al dugu han ikusten den jatetxe hartan? –galdetu zuen Ferminek. Kale estu bat zen eta autoz betea zegoen. Semaforoa aldatu zenean, Ferminek autoari jira gogor bat eman eta jatetxe aldera abiatu zen adiskideen baietzaren zain egon gabe. Ka-

le guztia pasatu behar izan zuen aparkaleku bat aurkitu arte.

Mahai luze batean eseri ziren eta etxeko karta eskatu zuten. Ez zegoen aukera handirik. Zopa bana eta haragia eskatu zuten hirurek. Haragia ia gordinik zegoen eta Mayak ez zuen erdirik ere jan. Bi mutilek, ordea, berehala amaitu zuten aurrean zuten guztia. Ardoak eztarria kiskaltzen zuen eta beroa zegoen. Ferminak beste botila bat eskatu zuen baina ekarri zientena aurrekoaren antzekoa zen.

Kafearen ondoren zigarro bat piztu nuen, keinu mekaniko bat da zigarroarena, ez zaude lasai, zerbaitek lotzen zaitu eta patrikan hasten zara miatzen ea zigarrorik baduzun, keinu mekanikoak lasaitu egiten zaitu, autodefentsaren mekanismoa martxan hasten da kearekin batera, eta gaur goizean jangelara jaitsi naitzen, Anttoni eskaini diodan egunona sei hilabete luze hauetan intuitu ditudan guztiak baino gehiago intuitu dizkiot bere erantzun hotzari, orain kafearen azukrea nahasten ari den honetan begiak tinko ditu katiluan, horrelaxe egongo litzateke ordubete luzean, badu horretarako baino gehiagorako ausardiarik, ez dio oraindik hitz erdi bat zuzendu Mayari eta buelta txo bat emango al dugu autoan sartu baino lehen? esan du eta axolarik ez didala erantzun diot, baina, egia esan, galdera Mayari zuzendua zen, eta orain pena dut nik erantzuna, galdera Mayari zuzendu dio nahiz begiak ez dituen bere katilutik altxatu, begiak ez ditu al-

txatu baina ahotsaren tonoa Mayari zuzendua zen, ez dut zalantzarik, jiratu eta uniformitate baikor batez modulutzen du tonoa Mayari zuzentzen zaionean, bestela ahotsa ez du gauza aparta, normala da, baina baidu zerbait berezia Mayari hitz egiten dionean, jiratu egiten da bai, ahotsari azala, forroa, estaldura erantsiko balio bezala, niri ez dit horrela hitz egin, eta jira hori inoiz baino garbiagoa antzeman diot gaur, Maya ere ohartu da bere begiak jaso baititu eta gero Anttoni begiratu dio baina nire erantzuna azkarragoa izan da eta pena dut, orain, garaiz ez konturatuaz, jakin nahi nuke zein bide hartuko zukeen hariaren etendurak nire orde Mayak erantzun izan balio, agian jakingo nukeen, hitz erdika bederen, gauean gertatu zaiena, gertatua asmatzen oso zaila ez bazait ere, baina ez zait anekdota interesatzen zeren argi baitago oheak ez dituela ase, anekdotak ez dit axolarik bakoitzaren anekdotarekiko harrerak baizik, behin baino gehiagotan esan diot Mayari Maya, Antton zuloz beteriko ontzi bat da, beno ez diot hitz horiekin esan baina ideia hori adierazi nahi izan diot, eta ez dut uste inoiz ulertu didanik, jakina da zuloz beteriko ontzi bati ura jarioan irteten zaiola, baina inoiz ez dakizu zein zulotatik irteten den ur gehiena, eta Anttonen arazoa ere horixe da, berak ere ez dakiela zein duen jario handieneko zuloa, baina, tira, Mayak erantzun izan balio, orain izango nuke zer pentsatua, baina zoaz orain Donostiaraino zamatsu zaitzun isilune bortitz honetan.

—Bueltatxo bat emango al dugu autoan sartu baino lehen? –galdetu zuen Anttonek bigarren kafea hartu zutenean.

—Ez dira hirurak besterik. Lauretan irtenda ere hamarretarako Donostian gara –erantzun zion Ferminek.

Mayak begiak jaso zituen mahaitik. Poltsa hartu eta mahaitik jaiki zen.

—Komunera noa. Berehala nator.

Ferminek dirua atera eta kontua ordaindu zuen.

—Ezagutzen al duk hiria? –galdetu zuen Anttonek.

—Ez asko, baina berdin duk. Hiri guztiak berdinak dituk pasadizorakoan.

—Hi, Fermin, haserre baldin bahago, barka, baina gorde hitzak ironiak beste baterako.

—Baina...

Maya komunetik bueltatua zen Anttonek azken hitzak bota zituenean. Ez entzunarena egin zuen baina gogaikarria zitzaion egoera, zeren ongi bainekien egun hartako hitz guztiak ironikoak zitzaizkiola Anttoni, ez du inoiz onartuko munduaren ardatza bera ez denik, pertsekuzioaren konplexua ez da gauza arraro bat, denok dugu pertsekuzioaren konplexutxo barnean sartuta, eta gaur Anttonek errudun topatzen du bere burua, haren ustetan, gure hitz bakoitza, gure mugimendu eta keinu bakoitza ez da bere erruaren salaketa besterik, bueltatxo bat ematera gonbidatu gaitu eta ez Ferminek ez nik adieraziko diogu aurkakorik, baina bueltatxoak ez du haren barrena lanbroagotu besterik egingo.

—Ba al duzue *Venenosen* berririk? —galdetu zuen Anttonek.

—Hura hire zain zegok —erantzun zion Ferminék. Bazkალაurretik aski lasaia zegoen kalea autoz eta burrundaraz bete zen. Oihuka hitz egin behar zuten.

—Nire zain?

—Hombre!

—Hi, hi, gauza bat duk erruak nire bizkar botatzea eta horregatik sei hilabete zuloan pasatu behar izatea eta beste bat adiskide batek *hombre!* lasai asko botatzea.

—Nahi baduk ez diagu auzia gehiago aipatuko baina errementaria ez duk tontoa.



«Lo cierto es que todo puede hacerse, aunque cueste un infinito cuidado», irakurri nion behin Nerudari, hombre! erantzun dit Ferminék, hitz bakar batean di-tuen aurreiritzi eta uste guztiak agerian azalduz, hitz bakar baten mugarik gabeko esanahia, eta ez dut hartaz hitz egin nahi, ez diot ezer esango, badakit nire inguru guztiak imajinatzen duela gertaturiko guztia, baina imajinazio soilean geratuko da eta denborak ere borratuko du imajinazioan geratzen den uste bakoitza eta osoa, denbora behar da, badakit, eta haserre erantzun diot Fermini, me estás tocando los güevos esaten zidan funtzionarioak haren lanaz zerbait galdetzen nionean, y esto te satisface?, ez horrela, noski, modu disimulatuago batean, eta me estás tocando los güevos erantzuten zidan, Maya denda bateko erakus-

leihoan ikusi dut zerbaiti begira, dirua eskatu diot Fermini Maya konturatu gabe, dendan sartu eta pakete-txo batekin irten naiz, o, Antton, eta paketea ireki du, eta ireki dudanean nire gustuak ezagutzen dituzula oroitu naiz, portzelanazko irudi hau nire oheburuko apalean ipiniko dut, ez, ez diot berari esango, gaur ez behintzat, nire oheburuko apalean ipiniko dut beste pitxiekin batera, eskerrik asko Antton, Ferminen ez zion bota diona esan behar, ahaztez gerotan geuk lagundu beharko diogu, lagatzen badigu behintzat, *Venenos* izena entzun dudanarekin batera zirrara batek korritu du nire bizkarrezurra, ez zion auzia aipatu ere egin behar, eta gaur gutxiago, Fermin, bale, errementariaren horrek ez zuen batere graziarik, ez zaizu horrela irudituko, Maya, eta hanka sartu dut agian, baina beste tipo honek zezenari adarretatik eusten ez badio jainkoak konfesaturik topa gaitzala, errealitatea ez baita ezkututzen guk hala nahi dugulako, *Venenos* bizirik dago eta hain bizirik gainera, zuk ere, Maya, badakizu zerbait horretaz, ala ahaztu egin zaizu, *Venenos* bizirik dago eta izango dugu, duzue haren berri-rik, alferrik da, bizitzak aurrera jarraitzen du eta ez ditu liluramenduen hutsuneak barkatzen, a, baina, dena dela, nigatik izan dezagun festa bakean, mutu bat naiz, bai, mutu bat eta ez didazue hitzik entzungo badaukat bai, Donostiara iristeko gogorik...!

Beldurrak eragiten zaituenean, hankak daldaraka hasten zaizkizu, burua inoiz baino argiagoa sentitzen duzu baina gorputzak ez dizu erantzuten eta, orduan, denbora noiz pasatuko geratzen zara. Ez duzu beste erremediorik.

ANTTON, BULEBARREKO BIDE ZABALA PASATU, eta Okendo kalerantz abiatu zen. Egurrezko ate ilun eta luze baten aurrean geratu zen. Pakete txiki bat zeraman, periodiku-orriez bildurik. Atearen eta hormaren arteko triangelu ilunean laga zuen paketea.

Berrogei bat metrotara zegoen autobusaren geltokira zuzendu zituen bere pauso urduriak. Tiketa ordaindu zuenean, erlojuari begiratu zion. «Gutxi falta duk». Burrundara ikaragarri eta lehor bat entzun eta jendea korrika ikusi zuen.

Autobusa ez zen txoferrak zer gertatu ote zen jakin artean abiatu.

—Bonba. Polizia bat bizi omen da hor. Jendeak ez daki gauza garbirik. Goazen! —bata bestearen atzetik korapilatzen zituen hitzak. Azkeneko hitzak konplikaziorik nahi ez duenaren beldur usaina zeraman.

—Eskerrik asko, Antton —eta paketea ireki zuen Mayak—. Hara, ez zaizkizu nire gustuak ahaztu. Ile-motots luzeko portzelanazko neskatxa iruten ari zen.

—Beno, beno, ez dizkidazu eskerrak niri bakarrik eman behar, e Fermin?

Ferminek barre egin zuen. Ahazturik zuen, nonbait, unetxo bat lehenago izandako hitz-etendura.

—El Banco de Vizcaya está satisfecho de poder ayudarle. Contribuimos al bienestar de los ciudadanos.

—Borobila irten zaizu —erantzun zion umoretsu Mayak—. Eslogan hori erabiltzen al dute Banco de Vizcayakoek?

—Ez dakit baina, hala ez bada, kontratatu egingo naute agian.

Bi hilabete zeramatzaten huelgan Peritoseko eskolan. Egoerak ez zuen irtenbiderik eta ekintza eraginkortara pasatu beharra zegoen. Hala esaten zuten asanbladetan. Inor ez zen metodo eraginkor haietaz ados jartzen baina dokumenturen bat idaztea erabaki zuten.

—Hi, Antton, hik esku ona duk idazte gauza horietarako —bota zuen ordezkariak.

«Tipo hori jendea konplikatua nahian zebilek beti» pentsatu zuen Anttonek ikaskide guztien begiak bere gainean sentitzen zituen bitartean.

—Zer esateko? —erantzun zuen ahots itzali batez Anttonek, adore handirik gabe.

—Badakik —ordezkariak bere behatz luzeena zuzendu zion— folloiairen historiaren historia eta arra-

zoiak. Labur eta zorrotz. Ez diagu betiko babokerietan ibiltzearekin ezer irabazten.

Ikaskide bat sartu zen une hartan gelan. Denek narbaritu zioten beldurra:

—Poliziak eskola guztia inguratu dik!

Leiho zabaletara inguratu ziren. Jeep pare bat ikusten ziren kalean. Iritzi guztiak pilatu ziren hasieran, ulertu ezin zen burrundara ozen batean. Gero, deiadarak itzaltzen hasi zirenekin batera, ordezkariak nolabaiteko isiltasuna lortu zuenean, hiruzpalau iritzi desberdin agertu ziren. Batzuk asanbladari jarraitu nahi zioten, baina ikasle ugari zen egoera hari irtenbiderik eman nahi ziona. Azkenean, talde ttikitan banatu eta eskolatik pixkanaka irteten hastea erabaki zuten.

Lehen taldea irten zenean, ez ziren bost besterik, poliziak ez zuen parterik hartu. Orduantxe lasaitu ziren animoak.

Anttoni ordezkariaren taldean irtetea egokitu zitzaion. Kalera irten zirenean, bakoitzak bide bat hartu zuen, erabaki bezala. Baina ordezkaria Anttonen parean jarri zen eta biak batera pasatu ziren poliziaren aurretik.

Urrutiratu zirenean, eta oraindik beldurraren arrastoa erantzi ez zutenean, ordezkariak esan zion Anttoni:

—Badakik: Bihar bertan behar diagu dokumentu hori.

—Harritzekoa! —erantzun zion Anttonek ordezkariari, honen hitzak entzun ez balitu bezala—. Ez zigutek karnetik eskatu.

Agurtu zirenean, hurrengo egunerako ez zutela hitzordurik egin pentsatu zuen Anttonek, eta pentsamendu horrek lasaitu zuen.



Hurrengo egunean ohean zegoen oraindik, ama gelan sartu eta esnatu zuenean:

—Antton, telefonoa zuretzat. Peritoseko lagun bat dela esan dit. Benga, mugi zaitetz, zain daukazu telefonoan eta!

Haserre jaiki zen. Telefonoa hartu zuenean ongi zekien nor zuen telefonoaren beste aldean.

—Hi, Andoni nauk, bai, ordezkaria.

Anttonek ez zion berehala erantzun; bere barne gutzia irauli zitzaion ahotsa ezagutu zuenean. «Zer duk?» hotz batez erantzun zion.

—Dokumentuarena.

—...

—Hemendik ordubetera bilduko gaituk.

Antton ez zen ezezkoa ematera ausartu, nahiz zurrunbiloaren lehen jira iruditzen zitzaion dei hura. Milla aitzakia etorri zitzaizkion burura ezezkoa emateko baina hitz labur batean agertu zuen bere ausardiarik eza:

—Non?

—Hemendik ordubetera, Buen Pastor parean. Bai, liburu dendako erakusleihoari begira egongo nauk hire zain.

Telefonoa utzi zuenean, nahigabea eta ezinegona jabetu zitzaizkion.

—Nor zen? –galdetu zion amak.

—Peritoseko adiskide bat. Esan dizu berak.

Amak ez zion beste galderarik egin eta kafesne katilukada bat atera zion mahaira.

Ferminen ez dit mesede handirik egin hau guztia gogorra ekarri didanean. Valladolideko hiri honetan urrutiegia zaizkit oroimenak, baina, hala ere, ongi gogoratzen ditut bi egun haiek, poliziarenak baino amorru gehiago eman zidan telefonoarenak, sare bat atzematen nuen ordezkariaren hitzetan, amua zorrotzegia da eta ez da inoiz denbora baino lehen erakutsi behar, sarea, ordea, zabalda da eta beldurra badiozu ere ongi kabitzen zarela pentsatzen duzu, zerbait arriskatu behar da, hala esan zenion zeure buruari, hemezortzi urtetako zeure buruari, beldur diozu adiskide baten komentarioari, kaka jario hago, egia zen baina zergatik esan behar zuen horrelakorik, adiskide baten komentarioak defentsiban ipintzen zaitu eta ez duzu hurrengo batean zulo berdinean erori nahi, ez duzu kakaren usainik zabaldu nahi, eta berdin jarraitzen duzu, kaka jario, baina saiatzen zara, bai, agoantatzen eta usainak ongi gordetzen, ez, ez duzu inork iradoki gabeko pausorik emango, ez duzu zeure burua tontotzat jotzen, baina zertxobait iradokiz gero, adiskide hartaz oroitzen zara eta ez zenuke sekula beste halakorik entzun nahi, bale, nora joan behar da?, erantzuten duzu, arrazonamenduak eta justifikazioak gero pilatzen dira, niri hala gertatu zitzaidan behintzat, ez dut beste inork juzgatuko, dena den, eta gauza guztien gainetik, kaka usainik gehiago ez, jaunok, hala erabaki nuen egun haietan.



—Egunon!

Ordezkaria ez zen bueltatu; erakusleihoari begira jarraitu zuen. Ongi ikus zezakeen Anttonen aurpegia kristalean.

—Egin al duk zerbait?

—Beno, eskema ttiki bat.

—Goazen!

Anttonen aurpegira begiratu gabe jiratu zen ordezkaria eta Parte Zahar aldera jo zuen. Ez zuten hitz erdirik esan Parte Zaharrera iritsi ziren arte.

Fermin Kalbeton kalera iritsi zirenean ebaki zuen Andonik isiltasuna:

—Ikusten al duk ezkaratz hura? Ni sartuk o nauk lehendabizi. Joan hadi buelta bat ematera eta hemen dik hamar minututara-edo jo ezak lehen pisuan dagoen ate bakarra.

Antton konturatu zenerako Andoni galdua zen ezkaratzaren ilunpean. Agindu bezala jokatu zuen Anttonek, nahiz ez zuen gauza handirik ulertzen. Taberna batean sartu eta kafea eskatu zuen. Hamar minutu pasatu zirela iduritu zitzaionean, kafea ordaindu eta ezkaratzean sartu zen.

Atea jo zuenean, ordezkariak gain beste norbait gehiago ere bazegoela pisu hartan pentsatu zuen.

Bost kanpaikada azkar entzun ziren, bata bestearen atzetik, isilunerik ez zutela ziruditen tartetxoetan.

—Oso berandu da! —esan zuen Mayak.

—Hemen, zorionez, inork ez du presa handirik —ebaki zion Ferminnek aurrean zuen zerbeza eztarriratzten zuen bitartean—. Eta hala hobea. Nik, behintzat, ez dut inorako presarik.

—Jode, bejondeiala —erantzun zion txantxetan Anttonek— ezta nire hauek San Agustinen aitorkizunak izango balira ere!

—Beno, beno, ez duk hainbestearaino. Gure heroia-
ren ustetan ez dago munduan berea baino historia mi-
resgarriagorik. Kontatzen ari haizen historiak ezagu-
tzen ez baditugu ere, imajinatzen ditiagu eta ongi
imajinatu ere. Maya, oroitzen al zara zein babo aurpe-
gia zeukan gure heroi honek huelga garaian?

Barre egin zuten hirurek. Antton alaiago zegoen,
agian ez zen hain komunikatibo egon kartzelatik ir-
ten zenetik eta hirurei nabaritzen zitzaizen aldaketa.

Anttonek amaitua zuen bere zerbeza eta zurruta-
da bat eman zion Ferminenari.



Anttonek prestaturiko eskema eta puntuak aztertu zi-
tuzten ordezkariaren eta harekin zeuden Peritosetako
beste bi mutilen artean.

—Zenbat denbora kostako zaik horri guztiari for-
ma egoki bat ematea? —galdetu zion ordezkariak.

—Egoki ala ez, zuek esango duzue gero, baino aski diat ordu erdi bat –papera eta boligrafo bat hartu zituen Anttonek–. Folio batekin aski duk, ezta?

—Bai, noski. Ez gaituk multikopian liburuak botatzen hasiko –beste bi lagunek barre egin zuten, Anttonek gela guztia begiratzen zuen bitartean multikopia bat non ikusiko.

—Zertarako duzue dokumentua?

—Ez ahal diagu etxean gordetzeko izango –ebakizion ordezkariak–. Hago lasai. Hik idatzi eta gure esku dokumentuarekin zer egiten dugun.



—Ez nian ordu laurden bat igaro, nahiz ideiak txukuntzea zaila zitzaidan. Otra cerveza, por favor –eskatu zion mahai aurretik pasatu zen zerbitzariari–. Zuek nahi al duzue zerbait gehiago?

—Beste bat nik ere –erantzun zion Ferminek.

—¡Que sean dos!

Mayak ezin zuen sinetsi Anttonen aldaketa azkarrak, eta harriturik zegoen elkarrizketa hartaz. Anttonek ez zion inoiz modu hartan hitz egin eta zerbait galdetzen zion bakoitzean, Anttonek ez entzunarena eginez erantzuten zion.

—Lehen egun haietaz gogoratzen haizela esan duk, ez, Fermin?

—Bai ederki asko.

—Ez diat uste. Asanbladaren egunean presentatu hidan Maya eta ez zarete asko oroitu.

—Egun hartan presentatu al nian? A, koño, a ze okurrentzia nirea!

Seiak ziren autoan sartu zirenean. La Brújulara iritsi arte ez zirela geratuko erabaki zuten.

—Eta bertan afalduko bagenu? —esan zuen Ferminek autoa arrankatzen zuen bitartean.



Demontres, hau duk hau aldaketa!, ez dakit katxondeoa den ala bere buruari adarra jotzen ari zaion, gaur ezingo nauk ezertaz harritu, Antton, orain hire begiak berriro basoan pausatu dituk eta historiari jarraituko hatzaio, historia sinplea, datuak eta oroimen aski garbia, baina ez haiz ohartzen eta ez ohartuko ere, ez hintzela bakarrik, hire historiaren jiran baginela jende gehiago ere, pazientzia, pazientzia ikaragarria beharko duk ikasgai hau ikasteko, lehendabizi heure burua hustu behar duk, seko hustu, lanetik etxeratzerakoan baso bat ardo husten den bezalaxe, seko hustu burua, eta hurrengo pausoa, akabo!, erabakiak hartzen hasi behar, baina burua hustu ondoren, bestela erabakiak biziaturik baitaude, eta erabaki bakoitza neurtu egin beharko duk, ez, ez pentsa gau guztia horretan pentsatzen igaro behar denik, hartu behar diren erabakietarako aski duk une bat, zigarroa pizten ari haizenean, autobuseko tiketa hartzen duanean, sudurrean

hazkura sentitzen duanean, aski duk horrelako eguneroko une normal eta ezkutatu bat erabaki bat hartzeko, gau guztia erabakiren bat hartzeko pasatzea ton-toa duk alde batetatik eta alferrikakoa bestetik, zeren gau guztia igaro ondoren ere zigarroa pizteko unean hartuko hukeen erabaki berbera hartuko baituk, eta hori duk zailena ulertzen, zuei arazo-aurpegia ipintzen zaizue berehala zerbaitetan hasten zareten bezain laster, cara-de-problema deitzen ziotek, kalean bahoia eta horrelako aurpegi batekin topatzen haiz, hau ere ikastoleroa pentsatzen duk, ikastoleroa beste gauza guztien sinbolo bezala, ikastoleroa, cara-de-problema, erabaki bat hartzeko aski dut zigarroa pizteko behar den unea, cara-de-problemaren angustia jasanezina, noski, nola ez, gau guztia erabaki bat hartzeko igaro ondoren, cara-de-problema, cara-de-angustia eta cara-de-estúpido, gaua beste zerbaitetarako sortu zian jainkoak, lo egiteko gutxienez eta gainerantzekoak gertatzen bazaizkik, orduan eta hobe, baina ez erabaki bat hartzeko, arranopola!, erabakiak hartzeko gaua?, eta urte askoren ondoren oraintxe ikusi diat, Antton, lehendabiziko aldiz cara-de-problemarik gabeko aurpegia, zerbeza baten inguruan, bai eta zer?, Valladoliden eta hik zer uste duk, Valladoliden ez dagoela cara-de-problemarik?, hori bakarrik gertatu behar zitzaian, Valladoliden hustu behar huen burua, bale, orain jarrai iezaioz historiari, eta historian jarraituko natzaio, bai, nahiz denak ez ditudan esango, arinagoa sentitzen naiz, zama astun bat gainetik kendu duzunean bezala, otarrekada bat egur ganbarara igo behar duzu, otarrekada astuna, lau pisu dituzu igotzeko, eta, halako batean, ota-

rrea hustu duzunean, arinagoa sentitzen zara eta ez duzu uste otarrea hartu baino lehen arinago zinenik, ez, ez da zerbezarena nahiz zerbezak ere lagunduk o didan, alafede!, sei hilabete alkoholik probatu gabe, esango didazue, baina hiruzpalau zerbezaren gora-beherak ez du nik orain sentitzen dudana eskaintzen, me trae un paquete de ducados?, bazen kartzelan komun bat etxetik toalla bat alkoholetan bustirik ekartzten ziotena, gero toalla bihurtzen zuenean litro bat-edo alkohol gordetzen zuen bere zieg an, urarekin nahasteko, edaten zuen, bai, alkohola ere hutsik. A deitzen genion, nola ba A.A. deitu anonimoa ez zenari, eta hiruzpalau zerbezaren gorabeherak ez nau egoera honetara ekarri, jarraituko natzaio historiari, bai, nahiz denak ez ditudan gogoratzen eta gogoratzen ditudan zenbait kontatu nahi ez ditudan, kolpean gertatu da, Maya erakusleihoaren aurrean zegoen, eta portzelanazko irudi hura ikusi dut, gustatuko zaio Mayari pentsatu dut, beno, ez dut asko pentsatu, zigarro bat pizten duzun momentuko erabakia, eta konturatzerako kalean nengoen berriro portzelanazko irudiarekin, gogoratzen ditut oraindik ere zure gustuak, Maya.